

noaua



**"URTE GOGORRA IZAN DA.
HELBURUA IGOTZEA ZEN
ETA EZ DUGU LORTU"**

lñigo Ibargoienek Portugaleten jokatu du aurten / 14

ARGAZKIA: NOAUA!

**Ekainaren 1etik 8ra
Usurbilgo kaxkoan
izango da garbigune
mugikorra / 3**

**NOAUA! astekariko
maketazioa eta
edizio sistema
berritu ditugu / 4**

**Udal hauteskundeak:
Inoizko babes
handiena jaso zuen
EHBilduk / 10**

**Pottokekin buelta
bat emateko aukera
igande honetan
Santuenean / 18**



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



Albania

IRTEERA 2023ko iraila

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIURUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL




USURBIL
OPTIKA

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa

*Banketxeak
onartzean



**PILARIK
GABEKO**

TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

Entzumen
azterketa
DOAN

Entzun
telebista
eta mugikorra
zure audifonoetan

943 37 02 69


ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

Garbigune mugikorra kaxkoan egongo da astebetez

Etxeetako hondakinen berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko jarri da martxan eta auzoz auzo ibiliko da

Zubietan egin zuen lehen egonaldia. Astebetez izan zen zubietarren zerbitzura. Maiazaren 25etik 31era Kalezarren egon da, auzokoposta gunearen ondoan. Ekainaren 1etik ekainaren 7ra bitartean, Usurbilgo kaxkoan aurkituko duzue.

Eta ekainaren 8tik aurrera, Aginagan egongo da astebetez. Garbigune mugikorra, hortaz, auzo guztietatik pasako da. Udalak aditzera eman duenez, "hondakinak bere horretan bota behar dira, poltsarik gabe".



Kalezarren auzokoposta gunearen ondoan egon da astebetez. ARGAZKIA: UDALA

Andatzako indusketetarako izen-ematea, ixtear

Ekainaren 1ean itxiko du Aranzadi zientzia elkarteak uda honetan Andatza I eta II eta Irigain eremuetan egin asmo dituen indusketa lanetarako boluntarioentzat irekia izan duen izen-emateko epea. Xehetasun gehiago, aranzadi.eus atarian.

Furgobaratzea Agerreazpin izango da ekainaren 5ean

Ekainaren 5ean, 18:00-19:30 artean Usurbilgo Baratze Parkera hurbilduko da furgobaratzea. Oraingo honetan, tomate landareak osasuntsu edukitzeko kontuan hartu beharreko jardungo dute (landaketa distantzia, zaintza, tratamenduak...).

'Usurbil, museo irekia' bisita gidatuak

Bisita gidatuek Usurbilgo kultur ondarea ezagutzeko aukera aparta eskaintzen dute. Larunbat eta igande eguerditan, Sutegitik abiatuko dira 12:00etan eta bisitak ordubeteko iraupena izango du. Izena aurrez eman beharko da: 650usurbilbizi.eus/agenda

Pelexen 'Hotsez Hots 2.0' erakusketa Sutegin

Ekainaren 2tik aurrera ikusgai izango duzue Jose Luis Elexpe "Pelex" usurbildarraren erakusketa, margolanez eta eskulturez osaturikoa. -Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:00. -Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

ETXEKO BERRI



IDOIA TORREGARAI NOAUA! KULTUR ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Garai berrietara egokitzekeo urratsa

NOAUA eraberrituta agertu zaigu aste honetan. Aldizkariak aspalditik zuen diseinu berri baten premia, baina hori ez da aldaketa eragin duen arrazoi bakarra izan. Toki komunikabideen esparruan ere, ezinbestekoa da berrikuntza eta ahalegin honek TOKIKOMeko gainerako hedabideen pare jarri gaitu.

Gaur egun 30 bazkidek osatzen dute TOKIKOM, guztira 78 hedabide kudeatzen dituztenak: 34 webgune, 30 aldizkari, 9 irrati eta 5 telebista. Batzuk aipatzearen: Aiurri (Andoain-Urnieta-Beterri-Aiztondo), Txintxarri (Lasarte-Oria), Kronika (Urumealdea), 28 kanala (Tolosaldeko telebista), GITB (Goierriko telebista), Goiena (Debagoiena), Uztarría (Azpeitia), Anboto (Durango), Guaixe (Sakana), Alea (Araba) Euskalerría Irratia (Nafarroa) edota UKT (Urola Erdi eta Urola Kosta eskualdeetako hedabideak).

Interneten, TOKIKOMeko gainerako hedabideen teknologia berbera baliatzen dugu. CodeSyntax enpresak garutako web plataforma erabiltzen dugu denok eta noaia.eus agerkari digitala puntakoa eta profesionala da.

Papereko bertsioan ordea, atzean geratzeko arriskuan geunden. TOKIKOMek garutako edizio sistema bateratua 2018an abiatu zen. NOAUAK ordea, ez zuen saltoa eman orduko hartan eta urratsa eman beharra zegoen. Bai ala bai. Martxotik hona, aztoratuta



ibili da erredakzio taldea. Edizio sistemaren inplementazioa bukatuta, NOAUAK aste honetan eman du lehen pausoa. Eta ez nolana hokoa. Maketazio berri batekin jaso duzue aldizkaria. Irakurleok orri orri sumatuko dituzue aldaketak.

Inbertsio handia egin dugu

Apustu honek ahalegin handia eskatu digu, eta inbertsio majo bat. Eta oraindik ere ahalegin gehiago eskatuko digu hurrengo asteotan, batez ere lan egiteko modua erabat aldatu zaielako gure kazetariei. Onerako izango dela seguru nago, lana modu egokiagoan eta profesionalagoan egiteko aukera emango dielako.

APUSTU HONEK AHALEGIN HANDIA ESKATU DIGU ETA INBERTSIO MAJOA

TOKIKOMek bezala, NOAUAK ere inbertsio handia egin du proiektu honekin, toki komunikabideen lehiakortasunean jauzi kualitatiboa ekarriko duelako. Eta gure moduko euskarazko hedabideen pare jarriko gaituelako. Zentzu horretan, Alaitz Artolazabal TOKIKOMeko zuzendariaren hitzak nire egiten ditut: “Beste edozein industriatan bezala, toki komunikabideen esparruan ere funtsezkoa da berrikuntza, antolakuntza zein teknologian, eta proiektu honek alderdi biak uztartzen ditu. Zentzu horretan, esker tzekoa da erakunde publikoek -eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiak- kultur eta sormen industriari ere berrikuntza sustatzeko laguntzak martxan jarri izana”.

Instituzioen babesa ez da nahikoa izango. Usurbildarrok ere gure ahalegintxoaren egiten segi beharko dugu. Bazkide ez bazara, orain duzue aukera!

NIRE USTEZ



IMANOL UBEDA
NOAUA KO KAZETARIA

Soldatak jaitsi behar izan ditugu. Ondo irakurri duzu. Iazko udazkenetik hona, NOAUA-ko langileok lan sari txikiagoa jasotzen dugu.

Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen dugu diru-laguntza potoloena. Diru poltsa bat du euskarazko tokiko hedabide ez publikoentzat eta kopuru hori da NOAUAREN moduko hedabideen artean banatzen dena. Lehia bidezko sistema baten bidez egiten da partizioa.

Azkenaldian, hiru urteko hitzarmenak sinatzen ditugu Aldundiarekin. Formula honek hiru urteko plangitza bat burutzeko aukera paregabea eskaintzen digu. Lehen, urteko diru-laguntza sisteman, zaila egiten zen etorkizuneko egitasmoak irudikatu eta burutzea.

2019-2021 hiru urtekoan ez bezala, 2022-2024ko deialdian NOAUA oso kaltetua atera da. Erreklamazioa aurkeztu genuen, balizko akatsak zuzentze aldera, baina gure alegazioak ez ziren aintzakotzat hartu eta, bataz beste, 20.600 euro gutxiago jasoko ditugu hiru urtez jarraian. Eta deialdi berria ez da 2024ra arte zabalduko. Atera kontuak. Horregatik jaitsi behar izan ditugu soldatak.

Udalarengana jo genuen eta harrera oso ona izan zen lehen unetik. Udalaren ekarpena handiagoa izango da aurrerantzean, baina egoera zailean segitzen dugu. Soldatak ezin gaurkotu. Horregatik inoiz baino garrantzitsuagoa izango da bazkideen ekarpena.

Bazkide-kuota, 50 euro

Egoera honen aurrean, NOAUA Kultur Elkartearen bazkideen batzar nagusian urteko kuota igotzea erabaki zen. Aurrerantzean, 50 eurokoa izango da bazkideei kobratuko zaiena (bazkide gazteen kuota ordea, berdin mantenduko da).



LH nahiz DBHko ikasleei zuzenduta dago jaietako Haurren Eguna. ARGAZKIA: NOAUA

Haurren Eguneko ekimenetan izen ematea zabalik da

Ekainaren 30ean ospatuko da eta ginkanan edota erronkan izena emateko epea ekainaren 16an itxiko da

LH nahiz DBH-ko ikasleentzat Usurbilgo jaietako ekimenetan izen emateko epea zabaldu du antolaketa lanetan ari diren herriko gurasoek. Deialdia bereziki, herritik kanpo ikasten duten gaztetxoei zuzendua dago.

Garai bateko formatu eta ereduan bueltan datoz Usurbilgo jaiak, adin tarte eta zaletasun anitzei erantzungo dieten hamaika hitzordurekin. Etxeko txikienei begira, ekainaren 30erako ekimen sorta prestatzen ari da urtero legez, herriko guraso talde bat.

Momentuz, aurreratu duteenez, goiz parterako LH eta DBH-koei zuzenduriko jolasez beteriko goiza antolatzen ari dira; aurreko edizioetan egin izan zuten moduan, LH1-4koek ginkanan parte hartzeko aukera izango dute. Helduagoek,

LH 5ean hasi eta DBH2ra arte ikasten ari direnek "erronkan".

Emaitzez egin behar da izen-ematea

Herrian ikasten dutenek ikastetxetik bideratu ahalko dute izen ematea, baina Usurbilen badira hainbat gaztetxo herritik kanpo ikasten dutenak. Haiei zuzendua dago bereziki, guraso talde honek NOAUA! bidez zabaldu nahi duen ohar hau. Adinaren arabera, ginkanan edo erronkan izena eman nahi dutenek ekainaren 16ra arteko epea dute, helbide honetan inskripzioa bideratzeko; santixabelak.umeen.eguna@gmail.com .

Gaztetxoen egun handia ekainaren 30a izango da

Ekainaren 30ean, goizeko 9:45ean ekingo zaie ekimen hauei.

Oiardo kiroldegiko udako ikastaroetako izen-ematea ixtear da

Ekainaren 4ra arte eman ahaliko da izena online, galdetegi bat beteta. Hau da eskaintza:

Aretoko jarduerak

Helduentzat: Spining, pilates, 3. adina, mantenu gimnasia. Gazteentzat: Uda kirol (12-16 urte).

Haurrentzat: Kirol txokoak (LH1-6 bitartean), eskalada (LH1-3 bitartean) eta eskalada (LH4-6 bitartean).

Uretako jarduerak

Helduentzat: Haurdunak (ur jarduerak eta pilates), hasta-



Ekainaren 4an itxiko da epea.

pena, hobekuntza, errendimendua eta aquagym. Igeriketa taldeak: Haurtxoak (0-1 urte), haurtxoak (2-3 urte), HH4, HH5, LH1, LH2 eta LH3.

Ikastola Egunerako txartelak aldeztuak erosi behar dira

Ekainaren 10erako antolatuta dute Udarrregikoek Ikastola Eguna. Jolasak, emanaldia eta bazkaria frontoian. Txartelak ekainaren 5era arte ikastolako idazkaritzan izango dituzte salgai:

Ikasleen menua:

makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura. Prezioa: 10 euro.

Helduen menua:

entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ ardoa/ ura, kafea eta pattarra. Prezioa: 16 euro.

Kamisetak ere salgai jarri dituzte 6 eurotan, eta Ikastola Eguneko ekimenetan hura jantzita joateko deia zabaldu dute.

Zubietako UdaFest ekainaren 5ean hasiko da, eskulan tailer batekin

Zubietako Guraso Elkarteak prest du aurtengo egitaraua. Ikasturte amaierako ekitaldi hauek denak errebote plazan egingo direla iragarri du.

Ekainak 5 astelehena

17:00-19:00 Eskulanak.

Ekainak 6 asteartea

17:00-19:00 Dantzen eguna.

Ekainak 7 asteazkena

17:00-19:00 Herri Kirolen ginkana.

Ekainak 8 osteguna

17:00 Ipuin kontalaria. 18:00 Apar Festa.

Ekainak 16 ostirala

17:00 Antzerki eguna.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Irati Borreguero Fernandorena aktore aginagatarrak 'Las buenas compañías' filmean hartu du parte. ARGAZKIA: NOAUA

“Amorruz adierazi genuen, zergatik ezin dugu abortatu?”

IRATI BORREGUERO FERNANDORENA AKTOREA

Maiatza hasieran estreinatu zen 'Las buenas compañías' filma. 70-80. hamarkadetan Errenteriako emakume talde baten borroka kontatzen du eta aktoreen artean da aginagatarra.

Zer lotura duzu “Las buenas compañías” filmarekin?

Klaseko kide batek film batarako jendea behar zutela komentatu zuen. Baietz esan eta nire datuak eman nituen. Ez nuen ilusiorik egin nahi. Baina hautatua izan nintzela esan zidaten eta aurrez Errenteriara joan behar nuela. Iazko uztailean izan zen. Filma aurkeztu, aktoreekin egon eta gu ateratzen ginen eszenetako gidoia eman ziguten. Hiru egunez egon ginen entseatzen eta gero grabatzera joan ginen. **Filmari buruzko sinopsi labur bat egiterik bai?**

70. hamarkadan abortua ez zegoen legalizatua. Errenteriako emakume talde bat bil-

du zen, eskubide horren alde egin zuten borroka. Talde txiki bat zen, elkarren artean laguntzen ziren, babesten, laguntza ekonomikoa biltzen aritzen ziren. Dena ezkutuan egiten zuten. Abortatu nahi zutenei Iparraldera joaten laguntzen zieten.

Zure pertsonaiatik nola azaleratzen da filmaren kontakizuna? Gehienbat beldurrez, baina baita borrokarako gogoz ere. Garai hartan etxean ezin zenuen esan abortatuko zenuela. Ez zekiten eskubide horren alde borrokatzea joango zinenik. Azkenean bakarrik zeuden, ez zuten besteen laguntza. Ilegala zen dena. Abortua legala izateko borro-

kan aritu zen talde hau, elkar laguntzen ziren eta hor ere indar gehiago zegoen.

Zu agertzen zaren eszena esanguratsuetako bat, 'Las buenas compañías' filmaren kartelean ageri da. Zer transmititzen dizu pasarte horrek?

Amorrua, haserrea eta borrokatzeko indarra. Entzunak izateko oihua da. Abortua legala izateko borrokatzen ari gara eta zuk niri entzutea nahi

"HIRU EGUNEZ ENTSEATU ETA GERO, GRABATZERA JOAN GINEN"

du, ze hau nahi dizut esan. Errealitate horren atzeak emakumeak zeuden sufritzen. Amorrurik handiz adierazi genuen, zergatik ezin dugu abortatu? Kartela begiratzean, borrokatzeko gogo hori ikusten dut, entzuna izateko nahia. **Nola prestatu zenuen pertsonaia, eszena hauek?**

Ze eszena grabatzera gindoa ez esaten ziguten. Bakoitzean nola ginen ikustea nahi zuten, zer ari ginen sentitzen, amorrurik edo haserre hori, inpotentzia ere bai. Azkenean, borroka batean ginen. Baina beldur hori ere adierazi behar genuen, ze azkenean inork ez zekien zer egin behar zen, nola hitz egin horretaz...

Neure buruari galderak eginez landu nuen pertsonaia, egoera horretan egongo bagina bezala jokatzeko; inork ez daki ezer, ilegal den zerbait egitera noa, polizia entzeratzen bada... Neure buruari galderak eginez beldur hori elikatzen aritu nintzen, sentimendu hori pizteko nigan, eta haserrearekin berdin.

“Borrokatzen jarraitzea, hori da geratzen dena”

Denboran atzera egiteko aukera izan duzu. Gai hau nola bizi duzu egungo ikuspegitik?

Egun abortatu nahi baduzu libreago adierazi dezakezu, espetxeratua izateko beldurrik gabe. Noski, egongo da jendea epaitu edo kritikatu zaituena, baina nire ustez orain babes gehiago dago garai harekin alderatuta. Baliabideak ditugu orain, ez dugu joan behar beste herrialde batera abortatzera.

Emakumeen eskubideen aldeko borroketako baten isla argia da filma. Gauzak asko aldatu dira baina egiteke asko da.

Beti dago zer aldatua, borrokatzen jarraitzea, hori da geratzen dena hurrengo belaunaldiak hobeto bizitzeko. Arbasoek borrokatu duten

→ bezala guretzat, guk ere besteentzat borrokatzea. Film honek hori asko islatzen du, ikusteko nola izan ziren gauzak, nondik gatozen...

Zure lehen filma izan da honakoa. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso esperientzia ona. Gogotsu bizi izan dut. Estreinaldi eguna noiz iritsiko nintzen, muntaia osoa ikusi gabe bainuen, ez nekien zenbat denboraz aterako nintzen... Jende jatorra ezagutu dut, lan giro ona izan dugu. Askok ikasten duzu nola den grabaketa bat, nola egin behar dituzun gauzak, nola funtzionatzen duen denak. Film bat ikusten duzu baina horren atzetik lan asko dago.

Esperientzia honek casting gehiagotara aurkezteko tentatu al zaitu?

Bai. Casting-etan izen-ematea garrantzitsua da, hor daude eta aukera berriak. Egia esan, orain ez naiz ari zereginotan, ikasketetan zentratu nahi baitut. Zaila da norbere profileko casting bat aurkitzea. Azkenean, gehienak hemendik kanpo izaten dira edo ez zara sartzeko adin, genero edo azalaren kolorean.

“Oholtzan aritzen naizenean, publikoa gertu sentitzea gustuko dut”

Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan duzu film horretan. Donostiako Arte Eszenikoaren Tailerrean hirugarren ikasiturtua amaitu berri duzue. Aurrez ez duzu halako esperientziarik izan. Nolatan murgildu zinen ikasketa hauetan?

DBH4 bukatu nuenerako, banekien aktore izan nahi nuela. Bilatzen ari nintzela, Donostiako Arte Eszenikoaren Tailerraren berri izan nuen. Gurasoekin hitz egin nuen eta esan zidaten hori egin nahi banuen aurrera jarrai-



Errenterriko emakume talde baten borroka egunak islatzen ditu filmak. ARGAZKIA: 'LAS BUENAS COMPAÑIAS' FILMA.

tzeko. Apuntatu nintzen eta gustura aritu naiz.

Aukeraketa honekin asmatu duzu beraz.

Bai, azkenean aktore izan nahi baduzu prestatu behar duzu zure burua eta ikasi. Askok ikasi dut hiru urteotan.

Aktore gisa, ertz askotatik helitzen diozue lanketa prozesu horri, ezta?

Nola erabili ahotza edo nola jarri gorputza eskenatokian, arnasketa, nola adierazi... Askok ikasten da. Metodo desberdinekin irakasten digute. **Oholtza gainean bukatu berri dituzue ikasketok.**

Lauhilerokoa amaitzen dugunean tarte horretan ikasitakoa oholtza gainean erakusten dugu antzezlan baten bidez.

Aurtengoa pixka bat desberdina izan da, azken urteko azken lauhileko erakustaldia zenez, hirugarren mailan gaudenok ordubeteko lan bat

"DBH4 BUKATU NUENERAKO BANEKIEN AKTORE IZAN NAHI NUELA"

prestatu dugu; "Barda" izeneko.

Donostiako prestakuntza saioen ondotik, nondik segi nahi zenuke?

Madrilera joatea pentsatuta dut, hor baitago dena.

Euskal Herrian aukera falta sumatzen duzulako, hortik Madrilerara joan beharra?

Hemen aukerak badaude baina ez da berdina Madrilekin alderatuta. Han ikastaro gehiago daude, ekoizpen eta grabazio gehiago, hor "jaiotzen" dira aktore guztiak. **Oholtza gainean edo grabaketa platoon, non sentitzen zara erosoago?**

Erosoago oholtzan, hor egiten duzuna hor geratzen baita. Azkenean, film edo telesail bat grabatzeko saiakera asko egiten dituzu, zaila izaten da emozio bera errepikatzea. Oholtzan egiten duzue anean hor sentitzen duzuna.

"HEMEN AUKERAK BADAUDE BAINA MADRILEN ASKOZ GEHIAGO DAUDE"

Bestalde, grabatzerakoan ez dago publikoa, agertokian publikoarekin zaude. Une horretan ikus-entzuleek zer transmititzen dizuten edo zuk sentitzen duzuna ez da berdina. Ahal duzun guztia eman eta gero, oso pozgarria da publikoa txalotzen hasten denean. Zure lana jarri duzu oholtza gainean eta publikoa hor sentitzea gustuko dut.

Bi sari gutxienez jaso dituzuen filmak, estreinatu aurretik. Sari-riketetan askotan aldarrikatu izan dute aktoreek, aitorpenak baino beharrezkoagoa dutela lana. Sektore honetako langabetu kopurua oso handia da. Kezkatzen zaitu lanbide honen etorkizunak?

Sektore honetan askotan ez dakizu bihar lana izango duzun. Hilabete batean lan egiten duzue baina gero tarte luzeago batean ez. Gaur, lanean egon zaitezke, ekonomikoki ongi eta bihar ez dira zutaz oroitzen. Zaila da.

Gurasoek komentatu zidaten bezala, antzerkia ikasi nahi banuen aurrera baina beste zerbait ikasteko, alternatiba bat izateko. **Ibilbide profesional horretan zer egitea gustatuko litzazuke?** Beti gustatu izan zait gaiztoarena egitea. Akziozko zerbait.



DA sorkuntza lan kolektiboak Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du. ARGAZKIA: NOAUA.

DA kolektiboaren lana ekainaren 9an aurkeztuko dute

Adin, jatorri edota arte diziplina ezberdinak eta horietan arituak nahiz ibili gabeak batu dira argitalpen kolektibo honetan

Munduan barrena egindako bidaia baten harira lau hitz edo kontzeptuetatik sortutako lan kolektiboa. Horixe da hain zuzen, DA. Ezohiko formatuan aurkezturiko arte diziplina ezberdinak batzen dituen talde baten sortze lanen bilduma. Ekainaren 9an, 19:00etan aurkeztuko dute jendaurrean Potxoeneako Urdintxoaretoan.

Sorkuntza lan honi buruzko xehetasunak eskaini dizkio NOAUA!ri bere sustatzailer nagusi Zorione Mendez herrikideak. Duela sei urte Europan eta Asian barrena eginiko bidaian bururatu

zitzaion ideia. “Hemengo jendearen gertutasuna behar nuen”.

Lau kontzeptu hautatu zituen: sekretua, fantasia erotikoa edota sexuala, bizipen bat eta amets bat. Horietatik abiatuta etxeokak, lagunak, bidaian zehar ezagututakoak, edozein arte diziplina baliatuta sortzera animatu nahi izan zituen; “lau gaietatik bat aukeratu eta horren inguruan idatzi bat, olerki bat, esaldiren bat, collage bat, pintura lana, marrazkia...” egitera gonbidatu zituen Mendezek.

Adin, jatorri edota arte diziplina ezberdinak eta horietan arituak nahiz ibili gabeak batu ditu. Jendeak “bere horretan parte hartzea nahi nuen”.

Joseba Tapia, Oreka TX edota Yogurinha Borovaren partehartzearekin

53 pertsona erakarri ditu proiektura, haietatik hamabi herrikideak edo Usurbilen bizi direnak, bidaian ezagututako hainbat lagunekin batera. Profesional hainbatek ere parte hartu dutela aurreratu digu. “Musikariek parte hartu dute, Joseba Tapiak, Niña Coyeteko Koldo Soretek, Oreka Tx taldeak, Yogurinha Borovak”. Bistan denez, denetariko lanak

"AUTO-OPARITIK SORTU ZENA, DENONTZAKO IZATEA NAHI DUT"

tartekatuko ditu liburuak; ez espero moduan, olerki edo ipuinak soilik. “Askotariko lanak daude”.

“Kolektibotik denontzako izatea nahi dut”

Eduki aldetik soilik ez, diseinuari dagokionean, beltz koloreko forma karratu txikiko bilduma izan arren, “nahiko koloretsua da. Orrialde bakoitzean sorkuntza lan bat egongo da”. Ez da ohiko erritmoan, hurrenkeran, orriz orri irakurri beharreko argitalpen bat. “Aurrera eta atzera” ibiltzeko liburuxka da, “formatu txikikoa. Auto-opari bat izenez, eramangarria izatea nahi nuen”.

Lana eskurartean izanda, “auto-oparitik sortu zena, kolektibotik denontzako izatea nahi dut”. Ehun bat ale argitaratuko dituzte Dortoka inprentarekin. Parte hartu dutenei ale bat oparituko zaio. Soberan daudenak “kolektibo, liburutegi eta abarretan” banatuko dituzte, doan “eta kolektibotasun horretatik”. Argi du Zorionek, “ez dugu etekinik aterako”.

Ekainaren 9ko ekitaldia Potxoenean izango da

Astebete barru Potxoenean aurkeztuko duten argitalpenak Usurbilgo Udalak kultur sorkuntza sustatzeko argitaraturiko dirulaguntza jaso du. Ekainaren 9ko ekitaldia “ezohiko formatuan” egingo dela iragarri du Zorione Mendezek. Lau instalakuntza jarriko dituzte Potxoenean, sorkuntza lan honen abiapuntu izan diren lau kontzeptuei lotutakoak.

Saioa Zorionek berak eta egitasmo honen bidelagun izan duen Gimena Angerizek bideratuko dute.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraltz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra

693 059 392
 uraltz@uraltz.com USURBIL

3. Uxue Trail lasterketan izena emateko garaia da

Ekainaren 18an egingo den elkartasun ekimen honetan parte hartzeko lau lasterketa modalitate iragarri ditu antolakuntzak

Ekainaren 18an izango da, aurten, igande goizez. Izena emateko epea zabalik dute interesdunek. Bi lasterketa izango dira aukeran, luzea edo motza. Paseoan parte hartzeko aukera ere egongo da. Lasterka ibili beharrik izan gabe, dortsal solidarioa ere eskuratu ahalko da, diru ekarpenaren truke.

Gogoan izan, Andatza inguratzaren duen elkartasun ekimen honen bidez, herrikidea dugun Uxue Martinek duen Pheilan-McDermid izeneko gaitotasun arraroa ezagutarazi

nahi dute, sentsibilizatu eta eritasun honen ikerkuntza sustatzeko laguntza bildu.

3. Uxue Trail mendi lasterketa solidarioa

Eguna: ekainak 18, igandea.
Ordua: 09:00.

Tokia: Usurbilgo frontoia.
Lasterketan parte hartzeko moduak: lasterketa luzea (20 km), motza (11,5 km), Uxue Paseoa (5,5 km) eta dortsal solidarioa.

Izen-ematea: ekainaren 16ko gaueko 22:00k arte kronoak.com atarian.



ARGAZKIA: NOAUA

Beste txapela bat Beñat Lizasorentzat

Beñat Lizasok Euskal Pilota Egokituko Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen aurreko asteburuan, Tolosako Beotibarren Hilario Olano kidearekin batera jokatuiko finalean. Gurpildun aukiko txapelketako azken neurketan nagusitu ziren. Manu Quesada eta German Elkoro izan ziren finaleko aurkariak.

ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

• EGUNEKO MENUA: (asteleheneretik ostiralera) • EGUNEKO PLATERA
• ASTEBURUKO MENUA • KARTA • RAZIOAK • OGITARTEKOAK • PINTXOAK...

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

begi•bistan
begi-bistan.com

INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT HAIN DIBERTIGARRIA IZAN

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI

657 79 46 77
info@begi-bistan.com

**ERRESERBATU
HEMEN**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

ERRESERBATU
HEMEN

Inoizko babes handiena jaso du EHBilduk

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan gehiengo osoa eskuratu zuen. Hamahiru zinegotzitik bederatziz izango ditu

2019ko udal hauteskundeetako emaitzekin alderatuta, abstentzioa %5,5 handiagoa izan arren, orduko hartan baino boto gehiago eskuratu ditu egungo udal gobernu taldeak: 1.771 %60,52ko parte hartzearekin (duela laurte 1.651 boto, %66,02ko parte hartzearekin).

EAJ-k orain arte zituen lau ordezkarietatik bat galdu du 2019tik hona, boto kopurua 864tik 757ra murriztu ostean. PSE-k ere apur bat gutxitu du jasotako babes (2019an 248 boto, 2023an 236 boto). Halere, orain arte zuen ordezkari bakarrari eutsi dio.

PP-k ordea, ez du ordezkariarik eskuratu.

Gehienak kide berriak

Ekainaren 17an osatuko da udalbatza berria. Ekitaldi horretan hartuko dute kargua



Abstentzioa %39,48koa izan zen.

alkateak eta hamabi zinegotzietatik. Gehienak ordezkari berriak izango dira. EHBilduko hiru ordezkariak eta EAJ-ko batek baino ez lukete errepikatuko legegaldi honetan: udal gobernu taldeko kide diren alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak eta bi zinegotzietatik (Ainhua Arrozpide Landak eta Oxkar Santamaria Pikabeak) baita EAJ-ko bozeramailea izan den Josune Urkola Larreak ere.

Foru hauteskundeetan ere, EHBildu nagusi

Udal hauteskundeetan gertatu bezala, boto kopurua gehitu duen eragile politiko bakarra EHBildu izan da, 1.744 boto jaso zituen, 1.731 2019an. Udal hauteskundeetan baino boto gutxiago halere. Usurbilgo udalbatza ordezkariak duten gainerako alderdiek beherakada txiki bat izan dute boto kopuruan: EAJren kasuan 721tik 692ra murriztu da, 300etik 224ra PSE-EE-ren kasuan.

Foru hauteskundeetan bozka zitezkeen hautagai zerrendak eskualde mailakoak ziren, Usurbilen kasuan, Donostialdekoak.

51 batzarkide hauta zitzaizketen gipuzkoarrek, haietatik 17 eskualde honetako biztanleek. Gehiengo osorik gabe, baina ordezkari gehien EHBilduk eskuratu ditu, sei guztira, 2019an baino bi gehiago. Ordezkari bana galdu dute EAJ-k (bost batzarkide eskuratu ditu) eta PSE-EEK (3 batzarkide eskuratu ditu). PP-k batzarkide bat gehiago irabazi du, aurreantzean bi izango ditu. Azkeneko batzarkidea Elkarrekin Podemos eta bere koalizio kideek eskuratu dute.

Zubietako herri batzarrak kide berriak izango ditu

Udal eta foru hauteskundeetan batera, Herri Batzar berria osatzeko deialdian parte hartu ahal izan zuten zubietarrek. Jon Arroyok eta Haritz Arrizabalagak bigarren legegaldia izango dute honakoa. Gainera lehen aldiz arituko dira Zubietako Herri Batzarrean.

Usurbil aldeko hautatuak:

Josune Iparragirre Tolaretxipi. Haritz Arrizabalaga Garmendia

Donostia aldeko hautatuak:

Maidier Izagirre Txoperena. Jon Andoni Arroyo Arozena. Nekane Zaldua Iturrioz.



Argazkian, Herri Batzarreko lau kide.

2023-2027 LEGEALDIKO UDAL ZINEGOTZIAK



Agurtzane Solaberrieta Mesa EHBilduko alkatea.



Jon Mikel Azpiazu Zubeldia EHBildu.



Ainhua Arrozpide Landa EHBildu.



Xabat Beloki Seguro EHBildu.



Iratxe Begiristain Otegi EHBildu.



Xabier Aranburu Leiva EHBildu.



Joxe Mari Lizaso Azkonobieta EHBildu.



Oskar Santamaria Picabea EHBildu.



Maialen Iñarra Arregi EHBildu.



Xabier Otxoa Muñoz EAJ-PNV.



Ivan Iriando Axpe EAJ-PNV.



Josune Urkola Larrarte EAJ-PNV.



Petra Romero Pozo PSE-EE.

Agurtzane Solaberrieta, EHBildu: "Oso hunkituta nago emaitzokin"

"Usurbilen udal hauteskundeetan lortu ditugun emaitzak historikoak dira: 1.771 boto lortu ditugu, duela lau urte baino 120 boto gehiago, eta EAJren boto jaitzierak eta gure igoerak ahalbidetu digu zinegotzi bat gehiago lortzea. 13 zinegotzitako udalbatzatik 9 zinegotzi ditu EHBilduk, EAJk 3 eta PSEk 1.

Boto igoerak, gainera, balio handiagoa du parte-hartzea duela lau urte baino txikiagoa izan zelako, eta udal hauteskundeetan errolda nabarmen igo delako, hau da, duela lau urte baino 182 hautesle gehiago, eta, beraz, ikuskizun zegoen ze joera izango zuen horrek. Oso ondo eutsi diegu, horrenbestez, joera berri.

Gainerakoan, eskerrak eman nahi dizkiot EHBilduko komunitateari, egin duen lanarengatik. Lorpena kolektiboa izan da.

Oso hunkituta eta oso pozik nago emaitzokin. Nire ametsik onenetan ere ez zela inoiz aukera hau azaldu. Mila mila esker Usurbil, bihotz-bihotzez.

Politikagintzan, hitzek baino ekintzek dute balioa, eta gure kasuan erakutsi dugu emandako hitza eta konpromisoak bete ditugula; esaten duguna garelako eta esaten duguna egiten dugula, eta gobernantza hori saritu eta babestu dute usur-



EHBilduk 1.771 boto eskuratu zituen.

bildarrek. Herritarrek badakite zertarako gai garen eta, batez ere, badakite emateko zenbat dugun. Asko egin dugulako elkarrekin, baina are gehiago dugulako emateko, eta lanez itzuliko dugu emandako babes guztia. Guztion artean eta guztiontzat, maite dugun Usurbil egiten jarraituko dugu.

Eta ezin aipatu gabe utzi oro har EHBilduren emaitzak. Historikoak izan dira: lehen indar politikoa gara, lau herrialdeetan 366.000 bozka lortu ditugu udal eta foru hauteskundeetan eta 1400 zinegotzi atera. Arnaldo Otegi atzo esaten zuen bezala, ziklo aldaketa baten atarian gaude Euskal Herrian: gure igoera sendoa eta sakonekoa da, ez da koiunturala, EHBilduk ordezkatzen dituen ideia, balio eta alternatibek gero eta sektore zabalagoekin konektatzen dute. Tendentzia sozial baten agerpena da, eta honek ez du atzera bueltarik".

Xabier Otxoa, EAJ-PNV: "Gure oposizioa eraikitzailea izango da"

Hauteskundeon biharamunean, EAJ-PNVren hautagaiak EHBilduzorionduzuen, "emaitza onak lortu baitituzte". Aurrera begira, "oposizio eraikitzailea egingo dugu, horrela besterik ez baitut ulertzen herrigintza eta politika".

Xabier Otxoa hautagai jeltzaleak EHBildu zorionduz hasi zuen bere balorazioa. "Lehenik eta behin EHBildu zoriondu nahi dugu, bai Usurbilen eta baita Gipuzkoan ere, emaitza onak lortu baitituzte. Aldi berean, guran konfiantza jarri duten herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu".

"Guk proiektu bat dugu Usurbilentzat", zioen Otxoak hauteskundeon biharamunean. "Benetan sinisten dugun proiektu bat eta hori lantzen jarraituko dugu. Oraingo hauteskundeetan gertatutakoa hausnartu, aztertu eta ondorioak aterako ditugu, baina ez diogu gure proiektuari uko egingo. Usurbildarren bide-lagun izango gara eta nahiz eta udalean oposizioan egon, gure esku dagoena egingo dugu usurbildarrentzat", azpimarratu nahi izan zuen.

Etokizunari begira, Usurbil hobeto bat posible dela uste du Otxoak: "Pertsonalki, ez naiz aitzakiak bilatzen hasiko, zintzotasun osoz uste dut gure



EAJ-k 757 boto jaso zituen.

proiektua usurbildarrentzat ona dela, baina ulertzen dut ere badaudela herritar asko berdin pentsatzen ez dutenak eta hori hauteskunde hauetan islatu da. Gure proiektua hobetzen jarraituko dugu, benetan sinisten dudalako, Usurbil hobeto bat posible dela. Argi daukadana da, botoak lortzeko helburuarekin usurbildarrentzat gure ustez onak ez diren neurriak edo proiektuak ez ditudala bultzatuko".

Gauzak horrela, nahiago du oposizioan jarraitu, "usurbildarrentzat onak ez diren proposamenekin irabaztea baino. Argitu nahi dut honekin ez dudala esan nahi EHBilduk horrela irabazi duenik, herritarrei gehiago gustatu zaien proiektua dute eta emaitzak onartu egin behar dira. Bukatzeko, udalean oposizio eraikitzailea egingo dugu, horrela besterik ez baitut ulertzen herrigintza eta politika".

PSE-EE: "Petra Romero ilusio handiz hasiko da Usurbilgo udaletxean"

"Sozialistok pozik gaude Usurbilgo emaitzekin, argi dago gure ordezkartza indartzea zela gure helburua, baina esan behar dugu EHBildu eta EAJren egungo polarizazio tesuinguruaren aurrean mantendu egin garelako, eta hauteskunde-kanpainaren emai-

tzei begiratu hori da ikusten diogun alde ona.

Zoriondu nahi dugu Francisco Patxi Suarez PSE-EEko udal-taldeko bozeramailea. Berak egin duen lan bikainarengatik, aurreko legealdian inolako eskarmenturik gabe sartu baitzen udalbatzan. Lau

urte zail izan dira. Hala ere, bere lan ona, bere jarrera elkarriketatzailea eta beti indar politikoa ezberdinekin akordioak lortzekoaren alde egon da. Are gehiago, Suárez gainerako zinegotzi sozialistentzat jarraitu beharreko eredu da.

Bestalde, datorren lau urtetan, Petra Romero udalbatzan sartuko da. Gure hautagaia Usurbilerako proiektua-

rekin aurkeztu da hauteskunde hauetara, eta ilusio handiz datorren legealdiari aurre egiteko.


Nabarmenezkoa da Andoaingo gobernagarritasunean eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan duen eskarmentua, eta ziur gaude Petra Romero PSE-EEren siglak ordezkatzeko pertsona egokia dela usurbildarren bizi-kalitatea hobetzeko lanean".



ARGAZKIA: NOAUA

Ahots berriak kantu-jiran

Hilero moduan, maiatzeko azken larunbatean abestera irten ziren Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak. Honakoan, herriko gaztetxo talde bat batu zen. Kantu-liburuxka eskuan aritu ziren kantari. Belaunaldi gaztea eta heldua, biak ala biak giro ederrean aritu ziren.



ARGAZKIA: NOAUA

Eskola Kiroleko bizikleta topaketa

Uda giro beteko larunbat goiza egokitu zitzairen Eskola Kiroleko partaideei. Goizean Txokoaldera joan etorria egin zuten eta handik bueltan, Udarregi ikastolako patioan ginkanan parte hartzeko aukera izan zuten. LH5 eta 6 mailetako ikasleek goiz pasa ederra osatu zuten.



ARGAZKIA: NOAUA

Perli eta Koxkolo Aginagan

Larunbat arratsaldean, dozenaka ume hurbildu ziren Aginagako Eliza Zaharrera. Perli eta Koxkolorekin batera, istorio eta abentura ugari ekarri zituzten gogora. Abenturaz betetako ipuin musikatu dibertigarri baten lekuko izan ziren, "elkar hobeto ezagutu eta gehiago maitatzen ikasteko".



ARGAZKIA: NOAUA

"Iribarrea barra-barra" Aginagan

Bakarrizketa gau bikaina borobildu zuten larunbat gauean Aginagako Eliza Zaharrean, estreinako antolatutako gala berezian. Mirari Martiarena, Xabin Fernandez, Bea Egizabal eta Idoia Torregararekin bi orduz barrez lehertzeko aukera bikaina izan zen dozenaka eta dozenaka herritarrentzat.



"Gure hanburgesa baserriko oilaskoz egina da eta ziazerbak, txanpinoiak eta azenarioa ditu, besteak beste". ARGAZKIA: NOAUA

"Hanburgesa saritua Otar-Goxon daukagu salgai"

PATXI IPARRAGIRRE OTAR-GOXOKO HARAKINA

Euskadiko autore-hanburgesen I. Lehiaketa ospatu zuten hilaren 21 ean Tolosan. Hanburgesa berritzaileen kategorian, Otar-Goxoko Patxi Iparragirrek bigarren saria eskuratu zuen.

Euskadiko I. Autore Hanburgesen txapelketan bigarren izan zara, hanburgesa berritzaileen mailan. Autore hanburgesa denez, errezeta propioa behar duzu, zeurea baino ez den errezeta bat. Berritzaileen kategorian, nahi duzun haragia erabili dezakezu, nahi dituzun osagaiak eta kantitateak gehituta. Gipuzkoako txapelketan lehen postua lortu dugu eta Euskadin bigarrena eskuratu berri dugu.

Gure hanburgesa baserriko oilaskoz egindakoa da eta ziazerbak, txanpinoiak eta azenarioa ditu, besteak beste. Probatu nahi duenak jakin dezan salgai daukagula Otar-Goxon. Lehen ere egiten

genuen baserriko oilaskoa eta ziazerbekin egindako hanburgesa, baina errezeta hobetu dugu orain. Maila handia zegoen lehiaketan eta ondo prestatuta joan beharra dago.

Otar-Goxon zein motatako hanburgesak saltzen dituzue?

Beti saiatzen gara produktu berritzaileak eskaintzen. Prestatutako janarien artean Pan Bao japoniarrak jarri ditugu berriki, oilasko eta barazki gyozeekin batera. Arroza oilaskoarekin ere badaukagu teriyaki saltsarekin. Aldatzen joaten gara produktu horiek. Udan gazpatxoa egiten dugu eta urtean zehar oilasko izter beteak ere bai. Kalitatezko

produktuak eskaintzen saiatzen gara prezio egokietan.

Gainera, azken aldian konturatu gara hipermerkatueta-ko kalitatezko produktuak guk baino garestiago saltzen dituztela. Atentzioa deitu digu horrek. Marka zurian ez, baina maila altuko produktu horietan bai.

Guk bertako produktuekin egiten dugulan asko, ezagunek saldutako haragiarekin eta

"GARRANTZITSUA DA HARAGIA KONFIANTZAZKOA IZATEA"

herriko artzainek egindako gaztekin. Hanburgesen kasuan, txahal hanburgesa daukagu, txapelketan bigarren egin duen hanburgesa berritzailea, oilaskoarena artaogiarekin, beganoa eta joan zen urteko txapelketan garaile izan zen behi hanburgesa.

Nola bereiz daiteke hanburgesa on bat txar batetik?

Hanburgesa on batek ez dauka koipe askorik eta jatean ondo egiten du. Hanburgesa txar batek koipe asko izaten du, sulfito eta gehigarri kimiko askorekin, eta horren ondorioz, digestioan ere nabaritu egiten da. Gazteen kasuan ez dute horrenbeste atzemango alde hori, baina helduagoen kasuan nabarmenago egiten da digestioaren kontu hori.

Hanburgesak etxean egiten ditzutenei zein aholku emango zenieke?

Guri gustatzen zaigu jendea-ri haragia eta produktuak saltzea, gero etxean eurek presta ditzaten hanburgesak edo dena delakoa. Produktu onak erabiltzea garrantzitsua da eta haragia ere konfiantzazkoa izatea.

Possible bada harakinak bere aurrean txikitutako haragia izatea hobe, hori da aholkurik onena hanburgesezkat edota bestelako haragia erostera-ko garaian. Osagai kopuru txikiak erabiltzen hastea komeni da, bestela zapuzteko aukera dago espezia eta belar-ekin behar bezala asmatu ezean.

Eta kalitatea, nola neurtzen da hanburgesen kasuan?

Bi ardatz nagusi daude horretarako.

Lehenik eta behin gordinik ikusi behar da. Itxura, tamaina, kolorea eta testura hartzen dira kontuan.

Ondoren, eginda nolakoa den aztertu behar da. Usaina, samurtasuna, zaporea eta itxura hartzen dira kontuan orokorrean.

“Helburua igoera zen eta ez dugu lortu”

Iñigo Ibargoienek Antiguokon eman zituen lehen urratsak eta Euskal Herriko hainbat taldetatik pasa ondoren, Portugaleten aritu da azken denboraldian. NOAUA!rekin izan da futbolaria bere ibilbidearen nondik norakoak azalertzeko

NOAUA! Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikitán. Noiz egin zenuen futbolaren aldeko hautua? Noiz hasi zinen futbola serio hartzen?

Futboleko Usurbilen hasi nintzen. Alebinetako bigarren urtera arte ibili nintzen herrian, oraindik futbola eta eskubaloia uztartzen diren urte horietan. Usurbilgo lagun batek Antiguokora joatera animatu ninduen eta gurasoekin astun samarra izanda lortu nuen talde hartan hasia. Infaniletan, kadetetan eta jubenetan bertan aritu nintzen. Jubenetan serioago hartzen hasi nintzen futbola eta orduan hasi nintzen benetan sentitzen nire kirola zela. Orduan nire asmoa ahalik eta urrunen ibiltzea zen, ez nuen profesional izatea irudikatu ere egiten. Eibarrekin sinatu nuenean, jubenetatik aterata, esfortzua egitea erabaki nuen bide horretatik jarraitzeko.

Txikitatik nabarmendu zinen futbolaria gisa. Orain ari zaren mailan, egunero entrenatzen duzue? Oso lotua da futbola?

Aurten bereziki asko entrenatu dugu. Larunbatean partidua izan eta igandetan ere entrenatu dugu maiz. Asteazkenean zehar egun bat edo bi izaten ditugu libre. Azken urteetan goizez entrenatu dut beti. Arenas de Getxon bi urtetan eta orain Portugaleten. Usurbilen bizi izan naiz beti, eta egunero kilometro batzuk egin behar izaten ditut entrenatzera joateko. Inguruko jendearekin joaten naiz entrenatzera egunero.



Oso gaztetatik piztu zitzaion futbolaria sena Iñigo Ibargoieni. ENLOZU FOTOGRAFIA

"KANPOAN ARITU NAIZ AZKENALDIAN BAINA USURBILEN BIZI IZAN NAIZ BETI"

"ERRENDIMENDUAK BEHERA EGITEN DU EZ BAZARA ZAITZEN"

Txapelketa garaian behintzat, parrandarako tarte gutxi izango duzue. Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra dago, ezta?

Bai, kirolari izateak eskatzen duelako eta baita bestela ere halakoa naizelako. Ez dut otordu bakoitzeko janaria pisatzen eta halakorik egiten, baina osasuntsu jatea gustatzen zait. Batez ere, ondo sentitzeko egiten dut, baina baita kirolean errendimendu ona emateko ere. Bizitza osasuntsurik gabe, errendimenduak behera egiten du.

Parrandari ere agur esan diot, orokorrean. Udan parranda gehiago izaten da, baina neguan ere izaten dira baten batzuk. Parranda eginda partidu garrantzitsuak jokatzera joateko ez dago. Kirolaren parte da hori. Oporretara joateko ere gauza bera gertatzen da. Lagunek abuztuaren joan nahi izaten dute kanpora, baina ni ordurako entrenamenduekin hasita egoten naiz. Hala ere, urtean zehar parrandaren bat edo beste egiten dut, baina oso egun seinalatu eta zehatzetan baino ez.

Portugaleteko jokalaria zara gaur egun. Lehiakortasun handia dago zuen taldean ala, alderantziz, lagun giroan entrenatzen al duzue?

Ahalik eta giro onena izaten saiatzen gara aldagelan. Gure arteko giroa nolakoa den partiduetan nabari da, bai eta denboraldi osoko martxan ere. Hala ere, gure artean izaten dira eztabaida txikiak, normalean haratago joaten ez direnak.

Futboleko areriotasuna oso nabarmena da. Maila honetan, giro sanoa da nagusi? Nolakoa da beste taldeekiko harremana?

Aurkariekin, taldekideekin ez bezala, ez dugu egunero topo egiten eta sortzen diren eztabaidak ez dira beti konpontzen partidua amaitu ostean. Ez dugu borroka handirik behin

ere izan, ez behintzat eskue-tara iristeko horietakorik.

Angeluko Isatsak taldean jokatu zenuen denboraldi batez. Oso ezberdina da hango eta hemen-go maila eta jokoa?

Urtebete egin nuen bertan. Jubeniletan Antiguokon ibilbidea amaitu eta Eibarren bigarren taldean aritu nintzen. 23 urterekin kontratua amaitu zitzaidan Eibarren eta Angeluko taldean egin nuen urtebete.

Oso urte ezberdina izan zen. Nahiz eta Iparraldea izan, ia inork ez zuen euskaraz hitz egiten, baina bigarren entrenatzaileak eta beste gutxi batzuek gazteleraz bazekiten Irungoak zirelako. Oso urte berezia izan zen orokorrean. Jende berria eta ezberdina ezagutzeko aukera izan nuen. Futbola fisikoagoa da han eta hemen taktikoagoa da. Ohitura ezberdinak dituzte han. Partida amaitu bezain pronto bi taldeak elkartzen ginen eta askari txiki bat egiten genuen errugbian bezala.

Urte batzuk egin dituzu futboleant. Zein izan da orain arte lortu duzun balentriarik handiena eta zein izan da unerik zailena?

Onena Eibarren bigarren taldearekin lortu genuen igoera izan zen. Hirugarren mailatik bigarren B mailara igo ginen. Igoera fase hori Ipuruan jokatzeke aukera eman ziguten eta oso oroitzapen politak dauzkate. Oso talde polita geneukan eta oso ondo jokatu genuen. Leonen lortu genuen igoera eta bikaina izan zen.

Okerrena, berriz, aurtengo denboraldia izan da. Denboraldia bukatu berri dugu eta denboraldi hasieran jarri genuen helburua igoera lortzea



Portugalete taldearekin jokatu du aurtengo denboraldian. CLUB PORTUGALETE.

edota playoff horietan sartzea zen, baina ez dugu lortu. Klubean ez dugu oso giro ona eduki, orokorrean, eta urte gogorra izan da niretzat. Kontratua jada amaitu zait eta ikusi beharko datorren urterako nirekin kontaktuko duten.

Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek?

Entrenatzaile asko izan ditut. Gehien gustatu zidana Antiguoko azken urtean izan nuen

entrenatzailea izan zen eta igoera lortu genuen Eibar hartan ere bidelagun izan nuen. Oso garrantzitsua izan zen hura niretzat eta oroitzapen ederrak ditut. Beste bat ere gogoko izan nuen. Txikitan Antiguokon jokatzen nuenean izandako entrenatzaile bat. Oraindik ere askotan deitzen dit zer moduz nabilen jakiteko. Urte asko pasatu dira, baina oraindik kontaktua daukagu.

"URTE GOGORRA IZAN DA. KLUBEAN EZ DUGU GIRO ONA EDUKI"

"KONTRATUA AMAITUTA, IKUSI BEHAR NIREKIN KONTATZEN DUTEN"

Usurbildik kanpo urte batzuk egin dituzu. Etxera buelta gertu ikusten duzu ala oraindik kanpoko taldeetan ikusten duzu zure burua?

Egia esan, beti izan dut kanporajoateko ideia hori buruan. Izan dut eskaintza politen bat kanpoan jokatu ahal izateko, baina ez naiz inoiz animatu. Gustatuko litzaidake kanpoko esperientzia hori bizitzea, baina orain arte Euskal Herrian ibili naiz.

Erretiratzen zarenean, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?

Futboleant jarraitzea gustatuko litzaidake Usurbil FTn, adibidez, edota pilotari ere helduko nioke. Bi kirol horien artean egon nintzen jubeniletara iritsi arte eta aukeratu beharra izan nuen bien artean, eta futbolari heldu nion. Behin erretiratuta gustatuko litzaidake pilotari heldzea eta beste, futboleant jarraituko nuke beste maila batean.

Laburrean

- Zenbaki bat:** 10.
- Kolore bat:** Zuria.
- Kirolari bat:** Luka Modric.
- Futbol zelai bat:** Ipurua.
- Film edo telesail bat:** Entrevías.
- Liburu bat:** Bizi baratzea.
- Abesti bat:** Fly (Ludovic Einaudi).
- Sare sozial gustukoena?** Twitter eta Instagram.
- Usurbilgo txoko kuttunena:** Usurbilgo frontoia.
- Santixabelak ala Sagardo Eguna?** Sagardo Eguna.
- Oporretarako toki bat.** Ibiza.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTA PAX 7, 943 54 37 94

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

Usurbilgo pilota txapelketak martxan dira

Usurbilgo pilota txapelketako lehen partidak aurreko asteburuan hasi ziren. Hau da asteburu honetako kartelera.

Senior mailako txapelketa

Ekainak 2 ostirala, 18:30

Apezetxea-Apezetxea
Orbegozo-Aranburu

Ekainak 3 larunbata, 18:30

Elola-Aizpuru
Odriozola-Alonso

Ekainak 3 larunbata, 18:30

Santxo-Urruzola
Zabaleta-Olaiz

Ekainak 4 igandea, 11:30

Astiz-Villabuena
Barbajero-Garatea

Kadete mailako txapelketa

Kadeteen txapelketa asteburu honetan hasiko da. Finalurrekoak ligaxka moduan jokatuko dira.

Ekainak 2 ostirala, 18:30

Alejo-Errasti
Perurena-Elola

Ekainak 4 igandea, 11:30

Zufiria-Oñate
Aburuza-Pagola

Ekainak 9 ostirala, 18:30

Alejo-Errasti/Zufiria-Oñate



Senior txapelketa martxan da. Kadeteak aste honetan hasiko dira lehen.

Usurbilgo pilota partidak

Ekainak 2 ostirala, 18:00

Infantilak, final laurdenak:
-Pagazpe.
-Abantzu 2.

Ekainak 3 larunbata, 16:30

Alebinak, 2.maila:
-Pagazpe-Añorga.
Kadeteak, 2. maila:
-Pagazpe-Eple.



ARGAZKIA: NOAUA

Infantil neskak, txapeldunak

Denboraldi amaiera ezin gozoagoa bizi du Usurbil Futbol Taldeak. Infantil nesken taldea txapeldun izan zen Zarautzen aurkako norgehiagokan. Infantil mutilek astebete lehenago jokatu zuten Arrasaten. Bertakoak izan zituzten aurkari. Txapeldunorde amaitu zuten partida. Zorionak denei!



ARGAZKIA: NOAUA

Musika, belaunaldien arteko lotune

Eguneko Zentroko nahiz Eguneko Arreta zerbitzuetako kideek Zumarte Musika Eskolako ikasleen kontzertuaz gozatu ahal izan zuten. Baita parte hartu ere; aurrez prestatutako abestiak kantatzen aritu ziren denak batera giro ezinhobean. Abenduan izango da hurrengo topaketa.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbizuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Jarduera lizentzia duen pisua da, igogailua, bainugela, sukaldea eta itzarongela barne. WiFi eta elektrizitate barne. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636711514

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646601947. 18:00etatik aurrera deitu.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarrerako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. 695 783 202.

Zaintzailea behar dugu lanaldi osoan, tituluduna, pertsona heldu bat zain-

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tzeko. Euskalduna bada hobe. 616 273 785.

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. Harremanetarako: 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680 483 164

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. Harremanetarako: 626 686 036

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten espezialista. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinakoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lanak lan bila dabilen neska euskalduna naiz. 695 184 179 (Olatz)

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideo espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarrea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 02	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 03	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 04	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 05	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astearte, 06	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 07	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 08	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 09	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 11	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Maren!

Aurten 9 urte beteko dituzu. Egun atsegin eta zoragarri bat pasa dezazula. Muxu eta besarkada handi bat etxekoan eta familiaren partez!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez NOAUAren bulegora edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

Internet

noaua.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://noaua.eus/zorionagurrak/> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean.

Astelehenero 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 01

AGINAGA Frontenis saioak

LH 1-6koentzat, astelehen eta asteazken arratsaldeetan, 15:00-16:00 artean. Izen-ematea: 695 723 192.

Antolatzailea: San Praixku G.E.
Ekainaren 1etik 21era.

OSTIRALA 02

USURBIL Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

"Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak" aztergai. Sarrerak: alde zurririk usurbilkultura.eus plataforman edo alkartasuna.eus atarian. Bideratzailea: Aitor Etxeandia. Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba. *Potxoenean 15:00etan.*

USURBIL Autodefentsa feminista ikastaroa

Ekainaren 2an (17:00-20:00) eta ekainaren 3an (10:00-13:00). Ikastarorako izena aurrez eman behar da: 943 377 110 parekidetasuna1@usurbil.eus *Ekainak 2 eta 3, Potxoenean.*

IGANDEA 04

USURBIL Ezkeltzura irteera

Martxa, Ezkeltzu Bizirik plataformak deituta. *Usurbilgo plazatik, 09:00etan.*



Lar Zaldiakek gidatuko du igandeko ekitaldia Santuenean. ARGAZKIA: NOAUA

Pottoken gainean bueltatxo bat emateko aukera

Gaztetxoek pottokekin gozatzeko aukera izango dute igande honetan Santuenean.

Goizeko 10:00etan hasi eta 13:30ak bitarte Santueneko eskubalo kantxan izango dira pottokak, gaztetxoekin paseatzeko prest. 2,5 euro ordaindu beharko dute parte hartu nahi dutenek.

Iaz ere ekimen hau antolatu zuten Santuenea Kultur Elkartekoek eta haren arrakasta ikusita errepikatzea erabaki dute.

Pasa den urtean ilara luzeak sortu ziren eta hori ekidite aldera, parte hartzaileei zerbaki bana emango diete eta bozgorailuaren bidez deituko diete ibilbidearen hasierara

joan daitezten. Pottoken gainean bueltatxo bat eman eta jolasak egiteko aukera ere izango da.

Pottokak Santuenean

Eguna: Ekainak 4, igandea. Leku: Santueneko eskubalo kantxan. Ordua: 10:00-13:30. Prezioa: 2,5 euro. Adina: haurrentzat. Ekimenak irauten duen bitartean, pintxoak eta sagardoa salgai. Antolatzailea: Santuenea K.E. Laguntzaileak: Lar Zaldia, Udala.

'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

'Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak' ikastaroa antolatu du Alkartasuna Kooperatibak ekainaren 2an, 15:00-18:00 artean Potxoenean. Aitor Etxeandia bideratuko duen saiorako izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus plataforman edo alkartasuna.eus atarian.

Igande honetan, Ezkeltzu Bizirik plataformak deitutako martxa

Ekainak 4, igandea

09:00 Usurbilgo plazan. 09:30 Zizurkilgo P. M. Otaño plazan. 10:00 Ezkeltzuko magalean (Zizurkil aldetik). Ondoren, hamaiketako. Antolatzailea: Andatza-Ezkeltzu Bizirik! elkarte.

I. Etumeta literatura lehiaketaren sari banaketa

Etumeta AEK euskaltegiak estreinakoz antolaturiko literatura lehiaketako sariak banatuko dituzte datorren astean. Ekainaren 7an asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Txiriboga tabernan.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

kw BELOKI

KELLERWILLIAMS.

Zerbitzu Inmobiliarioak iritsi da
eta gelditzeko etorri da

18 urtez merkatuan
5 bulego ingurunean
eta orain **USURBILEN** zerbitzura!

ESKATU ZURE ETXEBIZITZAREN BALORAZIOA
GASTURIK ETA KONPROMEZURIK GABE

Profesionaltasuna eta gertuko tratua!



Ana I. Flores Rolin
686 55 41 45
anaisabel.flores@kwspain.es
ana.kw.beloki



Joseba Goenaga
678 63 69 66

joseba.goenaga@kwspain.es
josebagoenaga_kwbeloki



BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



ERRIGORAKO PRODUKTUEN
Bi saski
zozketatuko ditugu
NOAUA!ko bazkideen artean



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

#MaiteDugunHerria

Usurbilen

1771

bozka
9 zinegotzi!

ehbildu

ESKERRIK ASKO!

EGIN DUGU!
DUGU! EGIN
EGIN DUGU!